

BALIO PROPOSAMENA:

Gure proposamena lehorgailu bat sortzea da baino lehorgailu honek hainbat berezitasun izango ditu. Alde batetik, ez du zaratarik egingo, hau da, lehortzen ari zaren bitartean ez du soinurik egingo eta horrek hainbat onura ekartzen ditu. Onura garrantzitsuenetako bat jendea eta batez ere etxeakoak ez dituzu gogaituko. Lehorgailu honekin jarraituz, zarata ez ateratzeaz gain musika jartzeko aukera izango duzu, hau da, zuk erabaki dezakezu musika jarri edoz ez, eta honako musika hau zuk aukeratu dezakezu Spotify bidez zure musika gustokoena jarritz. Zure abesti gustukoena bluetooth bidez lehorgailura konektatuz jarri ditzakezu. Honek egunerokotasunean dugun arazo handienetako bati aurre egingo lioke, izan ere, ileko lehorgailuek zarata asko ateratzen dutela eta horrek musika ez entzutea eramaten gaitu. Hortaz, lehorgailu honen bitartez zure musikaz disfrutatzen jarraitzeko aukera izango duzu. Laburbilduz, honako lehorgailu honek ez du zaratarik egingo eta musika jartzeko aukera edukiko duzu.

Diseinua: Iлеко lehorgailuak pistola baten forma du eta ondo nabarmendutako kurbak baita ere. Kurba eta forma hauek erabiltzen duten pertsonak lehorgailua ondo heltzera errazten die. Testura leuna du eta gure ile lehorgailuaren kolorea beltza izango da, iruditzen zaigulako beltza kolorea gehiengoak gustatuko zaiela. Dakizuen bezala ile lehorgailu batek botoiak ditu aire aire beroa edo hotza botatzeko eta botoi horiek ondo nabarmentzeko arros kolorea ezarri diegu. Honako lehorgailu hau ez da batere handia izango, hau da, zuen armairuetan erraz sartzeko aukera izango duzue eta ez da batere pisutsua izango 600 gramo inguru pisatzen ditu.



Prezioa: Gure ileko lehorgailu honek lehen esan bezala hainbat berezitasun ditu soinua ez egitea eta musika jartzeko aukera izatea, hortaz ileko lehorgailu normalekin konparatuz honako lehorgailu honen prezioa askoz ere altuagoa izango da. Hori normala da, izan ere, bien artean diferentzia asko dago eta batek besteak baino askoz gauza gehiago eskaini ditzake. Horregatik gure ile lehorgailuaren prezioa 150€ izango da.

Zerk bereizten gaitu lehiakideengandik?

Gure proposamen honek beste lehiakideengandik bereiz gaitzake bi arrazoiengatik. Alde batetik, berritasunarengatik, gaur egun, ez baitago bi ezaugarri hau dituen lehorgailurik, egia da, zarate egiten ez duten lehorgailuak daudela baina ez daude musika jartzeko aukera duten horiek eta hori bezeroentzat oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Bestetik erabilerraztasunarengatik, izan ere, gailu honek hainbat funtzio ezberdin ditu baina oso erraza da erabiltzen izan ere dena programatuta dago eta egin beharreko lan bakarra mugikorrean bluetootha ezartzea da guk proposatutako gailura kontaktazkeo.

